LEGAZPIKO UDALA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ZERBITZU-EMAKIDA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

PODOLOGIA ZERBITZUA LEGAZPIKO GIZARTE-ZENTROAN

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Legazpiko Gizarte-zentroko podologia-zerbitzua ematea da.

Podologia-zerbitzuaren egiteko nagusia oinetako gaitzak prebenitzea izango da eta, hala badagokio, gaitzak tratatzea. Kiropodiako teknika desberdinak gizarte-zentroko erabiltzaileentzat onuragarriak diren neurrian aplikatuko dira.

Podologia-zerbitzuko profesionalek egin beharreko tratamenduak beren lanbidearen legezko ahalmenen araberakoak izango dira, eta berariaz hartuko dituzte barnean honako hauek, besteak beste: helomak, hiper-keratosiak, azkazal hipertrofikoak eta askotariko patologia mikotikoak edo bestelakoak.

2. PROFESIONALAREN EZAUGARRIAK

Langileek Podologiako Gradua edo Lizentzia dutela egiaztatu beharko dute, eta dagokion Podologoen Elkargo Ofizialeko kide izan.

PLIEGO DE CLAUSULAS TECNICAS PARA CONTRATO DE CONCESIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

SERVICIO DE PODOLOGIA EN EL CENTRO SOCIAL DE LEGAZPI

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de podología del Centro Social del municipio Legazpi.

La prestación del servicio de Podología irá destinada hacia la prevención, y en su caso el tratamiento de las afecciones de los pies. Las distintas técnicas quiropódicas se aplicarán en la medida que sean beneficiosas para las personas usuarias del Centro Social.

Los tratamientos a realizar por el personal profesional en el servicio de Podología vendrán dados por las facultades legales de su profesión y comprenderán expresamente las relativas a quiropódias, tales como: helomas, hiperqueratosis, uñas hipertróficas y diversa patología micótica o de otra índole.

2. CARACTERÍSTICAS DE LA PERSONA PROFESIONAL

El personal deberá acreditar el título de la Grado o Licenciatura en Podología y estar colegiado/a en el correspondiente Colegio Oficial de Podólogos.

3. PERSONAS DESTINATARIAS

CSV: 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
NEREA ARREGUI ELOLA(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 17/03/2023 11:18:32
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2023

EXPEDIENTE :: 2023KIRO00005
Esp.Data: 14/03/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

LEGAZPIKO UDALA

3. HARTZAILEAK

Zerbitzuaren hartzaileak izango dira gizarte-zentroko erabiltzaileak, eguneko zentroko erabiltzaileak eta, bi zerbitzu horietako erabiltzaile izan gabe ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuek berariaz hartzailetzat ezartzen dituztenak.

4. LANTOKIA

Udaleko Gizarte Ekintza Sailak esleipendunaren esku jarriko du gizarte-zentroan kokatutako lokal bat, zerbitzuak eman ditzan. Halaber, lokalean dauden tresnak jarriko ditu bere esku, honako deskribapen honen arabera:

- Besaulki 1
- Aulki 1
- 2 aulkitxo
- Plastikozko 2 apal
- Lanpara 1
- Mikromotore 1
- Paperontzi 1
- Aterki ontzi 1
- Esekitoki 1
- Armairu 1
- Egurrezko altzari 1
- Konketa 1
- Berogailu elektriko 1
- Kortxozko hormetako 2 ohol
- Etxeko xurgagailu 1

Podologia zerbitzua, horretarako bakarrik erabiliko den eta aurreko paragrafoan aipatu den lokalean emango da, udaleko Gizarte

Serán personas destinatarias del servicio las personas usuarias del Centro Social, personas usuarias del Centro de Día y aquellas que sin ser usuarias de ninguno de los dos servicios, lo establezcan expresamente los servicios sociales de base.

4. LOCAL DE TRABAJO

El Departamento de Acción Social del ayuntamiento pondrá a disposición de la persona adjudicataria un local situado en el Centro Social para que preste sus servicios así como los aparatos idóneos con que cuenta el local, según siguiente descripción:

- 1 sillón
- 1 silla
- 2 taburetes
- 2 baldas de plástico
- 1 lámpara
- 1 micromotor
- 1 papelera
- 1 paragüero
- 1 perchero
- 1 armario
- 1 mueble de madera
- 1 lavabo
- 1 radiador eléctrico
- 2 corchos de pared
- 1 aspirador doméstico

El Servicio de Podología se prestará, en el local de uso exclusivo que se destine a tal fin y al que se refiere el apartado anterior, dentro del horario que establezca el Departamento de Acción Social del ayuntamiento y

CSV: 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
NEREA ARREGUI ELOLA(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 17/03/2023 11:18:32
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2023 11:18:32

EXPEDIENTE :: 2023KIRO00005
Esp.Data: 14/03/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Ekintza Sailak ezarritako ordutegiaren barruan eta berak emandako ohar orokorrak kontuan hartuta.

5. BETEBEHARREN ARAUAK

5.1 Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren kontura izango dira honako kontzeptu hauei dagozkien gastuak:

- Administrazio honek kontratatu beharreko aseguruei dagozkien gastuak, gizarte-zentroaren edukitzaileari eta edukiari dagokienez.

- Antzeko kalitateko ekipamendua birjartzeko gastuak, profesionalak gaizki erabiltzeagatik edo behar bezala ez mantentzeagatik hondatu denean izan ezik.

5.2 Podologoak honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

- Zerbitzua astean behin emango du Gizarte-zentroan 09:00etatik 13:00etara, Udaleko Gizarte Ekintza Sailak zerbitzua hobetzeko eta zerbitzua erabiltzen duten pertsonei egokitzeko egiten dituen aldaketak alde batera utzi gabe. Aldaketa horiek, ofizioz edo esleipendunak arrazoitutako proposamena jaso ondoren egingo dira, Gizarte-zentroaren barne-aldaketa denean izan ezik. Eguneko, gutxi gorabehera, 16 bisita aurreikusten dira eta bakoitzari 15 minutu dedikatuko zaizkio.

- Osasungarritasun-zerbitzu bikaina mantenduko du, bai instalazioei dagokienez, bai lanean erabiltzen den materialari dagokionez.

- Jarduerarako behar den tresneria eta material suntsigarri guztia eskuratuko du.

atendiendo las indicaciones de tipo general que formule de la misma.

5. REGIMEN DE OBLIGACIONES

5.1 Será por cuenta del Departamento de acción Social del ayuntamiento los gastos correspondientes a los siguientes conceptos:

- Gastos correspondientes a los seguros a contratar por esta Administración respecto al continente y contenido del Centro Social.

- Reposición de equipamiento de similar calidad salvo que su deterioro estuviera motivado por el mal uso o la falta de un mantenimiento adecuado por parte del o de la profesional.

5.2 El/la Podólogo/a se compromete a las siguientes obligaciones:

- Prestar el servicio una vez a la semana en el Centro Social en horario de 9:00 a 13:00 sin perjuicio de las modificaciones que efectúe el Departamento de Acción Social del Ayuntamiento para la mejora y adecuación del servicio a las personas que lo utilicen, de oficio o ante propuesta razonada de la persona adjudicataria, salvo modificación interna del Centro Social. El número de visitas estimadas, será de 16 por día, con una duración de 15 minutos cada una.

- Mantener un esmerado servicio de salubridad tanto en lo que se refiere a las instalaciones como en material que se utilice en el desarrollo de su profesión.

- Adquirir todo el instrumental y material fungible necesario para la actividad.

CSV: 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
NEREA ARREGUI ELOLA(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 17/03/2023 11:18:32
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2023 11:18:32

EXPEDIENTE :: 2023KIRO00005
Esp.Data: 14/03/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

- Ez du podologia-zerbitzuko lokala erabiliko erabilera-baimenaren xede ez diren beste jarduera batzuetarako, eta ez ditu 3. atalean aipatutakoez bestelako erabiltzaileak artatuko.

- Esleipendunak, zuzenean eta pertsonalki egingo ditu lizitazio honen xede diren eginkizunak. Laguntzaileak izan ditzake baina horiek ez dute Udalarekin inolako mendekotasun- edo harreman-eskubiderik izango. Laguntzaileak izanez gero, Udaleko Gizarte Ekintza Sailari jakinaraziko zaizkio lankidetza hori eman ohi duten pertsonen izenak; horrez gain, harreman horretatik sortutako lan-obligazioak bete direla egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztuko da.

- Esleipendunak eguneroko erregistro bat izango du behar bezala eguneratuta formatu elektronikoan. Bertan, egunero, erabiltzaileen izenak, emandako zerbitzuen xehetasunak eta kobratutako zenbatekoak jasoko ditu. Erregistro hori Legazpiko Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren eskura egongo da une oro.

- Jardueraren ondorioz sortuko diren hondakinak kudeatzeari dagokionez, esleipendunaren ardura izango da hondakinak behar bezala bereiztea eta hondakin bakoitza jasotzeko dauden edukiontzi espezifikoetan uztea.

- Esleipendunak honako jardunbide egoki hauek bete beharko ditu uraren eta energiaren kontsumoari dagokionez:

- No destinar el local del servicio de podología a otras actividades diferentes de las que constituyen el objeto de la autorización de uso ni atender a usuarios/as distintos/as de los enumerados en el apartado 3.

- La persona adjudicataria, debe realizar directa y personalmente las funciones propias objeto de esta licitación, pudiendo tener personas colaboradoras en su trabajo, quienes por ello no adquirirán ningún derecho de dependencia o relación con el Ayuntamiento, debiendo en este último caso poner en conocimiento del Departamento de Acción Social del Ayuntamiento los nombres de las personas que habitualmente presten tal colaboración, así como la documentación que acredite el cumplimiento de las obligaciones laborales derivadas de dicha relación.

- La persona adjudicataria llevará debidamente actualizado un registro diario en formato electrónico, donde deberá figurar el nombre de las personas usuarias, el detalle de los servicios prestados y los importes cobrados. Este registro estará en todo momento a disposición del Departamento de Acción Social del Ayuntamiento de Legazpi.

- En cuanto a la gestión de residuos derivada de la actividad, corresponderá a la persona adjudicataria separar correctamente los residuos y depositarlos en los contenedores específicos para cada uno de ellos.

- La persona adjudicataria, vendrá obligada al cumplimiento de las siguientes buenas prácticas en cuanto a consumo de agua y energía:

- No dejará correr el agua innecesariamente y evitará el despilfarro de agua cerrando bien los grifos para evitar que goteen
- Ahorrará energía en iluminación aprovechando al máximo la luz natural y

CSV: 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
NEREA ARREGUI ELOLA(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 17/03/2023 11:18:32
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2023 11:18:32

EXPEDIENTE :: 2023KIRO00005
Esp.Data: 14/03/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

- Ez du ura beharrik gabe erabiliko eta ura alferrik gastatzea saihestuko du, konketak ongi ixten eta itoginak saihestuz.

- Energia aurreztuko du, ahal dela argi naturala aprobetxatuz eta ekipo guztiak deskonektatuko ditu erabiltzen ez direnean.

- Esleipendunak, kontratuak dirauen bitartean, arretazko zerbitzua eskaini beharko du, une oro establezimendu publikoetarako ematen diren arau eta xedapen tekniko eta sanitarioei erantzungo diena; halaber, Gizarte Ekintza Sailak alderdi orokorrei buruz emango dizkion jarraibideak beteko ditu eta, bereziki, Gizarte-zentroko gainerako zerbitzuekin izan beharreko koordinazioan eragina izan dezaketenak.

- Esleipendunak ezingo dio hirugarren bati zerbitzua eskualdatu.

- Modu berean ezingo ditu kartelak, errotuluak edo iragarkiak jarri eta ezingo du inolako obrarik egin, Gizarte Ekintza Sailaren berariazko eta aldez aurreko baimenik gabe.

- Esleipendunak ordaindu beharko ditu zerbitzua ematetik eratorritako zerga-betebeharrak edo gizarte-aurreikuspeneko eta gizarte-segurantzako betebeharrak.

- Instalazioetan lan-arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzen ez bada, zentroko zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio.

desconectará los equipos cuando no se estén utilizando

- La persona adjudicataria, vendrá obligada durante el tiempo que dure el contrato a mantener un esmerado servicio atendido en todo momento a las normas y disposiciones de carácter técnico sanitario que se dicten para establecimientos públicos así como a las indicaciones que sobre aspectos generales del servicio le sean dadas por el Departamento de Acción Social del Ayuntamiento, especialmente aquellas que pudieran afectar a la correcta coordinación del servicio con el resto de los servicios del centro Social

- La persona adjudicataria no podrá traspasar el servicio a terceros.

- Asimismo, tampoco podrá colocar carteles, letreros o anuncios publicitarios de ningún género ni realizar obra alguna salvo autorización expresa y previa del Departamento de Acción Social del Ayuntamiento.

- Serán de cuenta de la persona adjudicataria las obligaciones fiscales o de previsión y seguridad social derivadas de la prestación del servicio

- Deberá poner en conocimiento de la Dirección del centro cualquier deficiencia de las instalaciones que incumplan la normativa en materia de prevención de riesgos laborales.

CSV: 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E70005FF7100H9D7Z0H0R4N7W0U7V8W7S1D7L5 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
NEREA ARREGUI ELOLA(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 17/03/2023 11:18:32
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2023 11:18:32

EXPEDIENTE :: 2023KIRO00005
Esp.Data: 14/03/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL